

2008-01-08ko OHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta zortzigarren urteko urtarrilaren zortzian, arratsaldeko 20:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohizko batzarra egin du Udalbatzak, alkatea –Marimi Ugalde Zabala andrea– buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: M. Jesus Otaño Zumeta andrea, Eugenio Loidi Garmendia jauna, Jose Luis Olano Zubeldia jauna eta Agustin Zubeldia Iraola jauna.

Ez dira etorri eta ezin etorria adierazi dute: Gregorio Lasa Etxezarreta jaunak eta Aitor Lasa Olalde jaunak.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Bittor Agirreurreta Murgia jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekiztat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxienerako partaide-kopurua bertaratua baita.

LEHENBIZIKO GAIA AURREKO AKTAK ONARTZEA (07/12/20).

2007ko abenduaren 20ko ezohizko saioaren aktaren zirriborroa ikusita, aho batez erabaki du Udalbatzak hau onartzea.

BIGARREN GAIA ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak honako dekretuen berri ematen dio udalbatzari:

-2007-12-18ko 130/07 Dekretua: Gizarte larrialdiko laguntza onartzea 131-E eta 10-Eri, 329 eta 133,87 €koa hurrenez hurren.

-2007-12-27ko 131/07 Dekretua: Mari Jose Aizpuru udaleko langilearen 4. urratseko ikastaroko matrikularen gastuak ordaintzea.

Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA APATTERREKA MANKOMUNITATEAN IRURAKO UDALEKO ORDEZKARI IZANGO DENA/DIRENAK IZENDATZEA.

Irurako Udala, Apaterreka Mankomunitateko kidea denez eta honen ohizko funtzionamendu eta jarduerarako, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Marimi Ugalde Zabala andrea izendatzen du udal honetako ordezkari aipatutako Apaterreka mankomunitatean.

LAUGARREN GAIA
TOLOSALDEKO HILTEGIAREN MANKOMUNITATERAKO IRURAKO
UDALEKO ORDEZKARI IZANGO DENA/DIRENAK IZENDATZEA.

Irurako Udala, Tolosaldeko Hiltegiaren Mankomunitateko kidea denez eta honen ohizko funtzionamendu eta jarduerarako, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Marimi Ugalde Zabala andrea izendatzen du udal honetako ordezkari aipaturako Tolosaldeko Hiltegiaren Mankomunitaterako.

BOSGARREN GAIA
ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO UDALEKO 2008KO LAN ESKAINTZA
PUBLIKOA ONARTU ETA HUTSIK DAUDEN JENDAURREKO ARRETAKO
ADMINISTRARIA ETA ZERBITZU ARDURADUN LANPOSTUAK BARNE
PROMOZIOZ BETETZEKO DEIALDIA ETA OINARRIAK ONARTZEA.

Udal honetako Osoko Bilkurak, 2006ko uztailaren 26an, besteen artean, udal honetako giza baliabideak arrazionalizatzeko programa eta lanpostuen eranskina onartu zituen. Izapideak jarraituz, 2006ko urriaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatua izan zelarik.

Bertan azaltzen zen bezala eta langile beharrak kontuan hartuta eta lanpostuak hartutako esperientziaren arabera arrazionalizatuta, batetik, “administrari laguntzailea” eta “zerbitzu orokorren arduraduna” lanpostuak amortizatu beharrekotzat joak izan ziren; bestetik, “herritarren arretarako administraria” eta “zerbitzuen arduraduna” lanpostuak berrantolatu eta barne sustapen bidez hornitzea erabaki zen.

Aurrekoa ikusita, eta kontuan izanik, 2007ko apirilaren 26ko ezohizko osoko bilkuran, udalbatzak udaleko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda onartu zuela, Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, Irurako Udaleko 2008ko lan eskaintza publikoa onartu du. Eskaintza honen ezaugarriak ondokoak direlarik:

Lanpostuen zerrendan hutsik dauden lanpostuak:

- Herritarren arretarako administraria: Hutsik dago, lanpostua berrantolatua izan delako. Betetzeko sistema: Barne promozioa izango da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez.
- Zerbitzuen arduraduna: Hutsik dago, lanpostua berrantolatua izan delako. Betetzeko sistema: Barne promozioa izango da, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez.

Lanpostu hauek betetzeko lehiaketa-oposizioaren oinarriak atxikitzen dira.

Aldi berean, guztiei honen berri emateko asmoz, aditzera emango da dagozkion iragarkiak argitaratuz, Euskal Funtzio Publikoko uztailaren 6ko 6/1989 Legeko 24. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilearen bidez

onarturiko Udal Erregimen alorrean indarrean dauden Legebide Bateratutako Idazkiko 128.1 artikuluan xedatutakoa beteaz.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

SEIGARREN GAIA GALDERAK ETA ESKAERAK.

Alkate andereak hitza hartu eta ondoko hiru gaiak aztertzeko proposamena egiten du: batetik, 2004an Euskal Forging enpresarekin sinatutako hitzarmena berrestea, bestetik, odol emaileen elkarteak egindako eskaera, eta azkenik, 2008ko lan egutegiaren proposamena.

Udalbatzak, bertan daudenek aho batez harturiko erabakiarekin, aipatutako gaiak aztertzea onartzen du.

6.1. ONARTZEA, BADAGOKIO, 2004AN EUSKAL FORGING ENPRESAREKIN SINATUTAKO HITZARMENA BERRESTEA.

Euskal Forging, SA enpresak, indarrean dauden Irurako hirigintza planeamenduko arau subsidiarioetako 26. gunean dituen instalazioetan hobekuntza eta handitze beharrak jakinarazi zizkion Irurako Udalarari 2004 urtearen lehen hiruhilekoan. 2004ko martxoaren 16ko Aparteko Osoko Bilkuran, udal batzarrak aho batez onartu zuen Euskal Forging, S.A. enpresarekin 2004ko martxoaren 8an sinatutako hitzarmena tratamendu termikoen instalazioak handitzeko, baina hainbat arazo medio, handitze eta hobekuntza lan haiek ez ziren aurrera eraman.

Egun, lan horiek aurrera eraman behar ditu aipatutako enpresa horrek eta aurretik egindako hitzarmena iraungia dagoelakoan eta hura motibatu zuten arrazoien gaurkotasuna kontuan hartuz, beharrezkoa ikusten da aipatutako hitzarmena berretsi eta indarrean jarraitzen duela aitortzea.

Guztia kontuan izanik eta aipatutako hitzarmena sinatzera bultzatu zuten arrazoiek indarrean jarraitzen dutela, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ondokoa erabakitzen dute:

Lehena.- Euskal Forging, S.A. enpresarekin tratamendu termikoen instalazioak handitzeko 2004ko martxoaren 8an sinatutako hitzarmena berretsi eta gaurkotasuna aitortzea.

Bigarrena.- Sinatutako hitzarmena Irurako plangintzako arau subsidiarioen berrikuspenean kontuan izatea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

6.2. ONARTZEA, BADAGOKIO, GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN ELKARTEKO IRURAKO ORDEZKARITZAK EGIN DUEN DIRULAGUNTZA ESKAERA.

2008ko urtarrilaren 8ko sarrera da eta 48 zenbakia duen idazkiaren bidez, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteko Irurako Ordezkaritzak dirulaguntza eskaera egin du. Elkarte honek urtean zehar bi odol ateratze saio egiten ditu Iruran eta hauek antolatze eta ondoren ematen den askaria egiteko, diru eta hainbat baliabideren eskaera egin beharrean aurkitzen da.

Guztia kontuan izanik, udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, ohizkoa den laguntza ematea ondokoa erabakitzen dute.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

6.3. ONARTZEA, BADAGOKIO, IRURAKO UDALEKO 2008 URTERAKO LAN EGUTEGIA.

Irurako udaleko langilegoak, 2008 urterako lan egutegiaren proposamena aurkeztu du. Berau azaltzeko, Joxi Lasa eta Alex Lasa, langileen ordezkariak biak, bilkuran parte hartzen dute egiten den proposamena aurkeztu, azaldu eta sor litezkeen zalantzak argitzeko.

Udalbatzak, bertan daudenek aho batez hartutako erabakiaren bidez, langilegoak 2008 urterako proposatutako lan egutegia onartzen du. (Lan egutegia ondoren atxikitzen da).

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini daiteke Donostiako Administrazioarekiko auzietako epaitegietan.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, 21:10etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek EGIAZTATZEN dut.